



ZAINKETETAKO KONTZILIAZIO ERANTZUNKIDEA ERRAZTEKO NEURRIAK, COVID-19A NAFARROAN IZAN BITARTEAN



AURKEZPENA

COVID-19aren krisiak agerian utzi ditu, modu are esplizituagoan, pertsona guztientzako zainketen garrantzia eta eginkizun nagusia. Haur eskolak, ikastetxeak, adineko pertsoneri arreta emateko eguneko zentroak eta abar ixteak azalean utzi ditu, era nabarmenean, bizitza pertsonala, lana eta familia modu erantzunkidean bateratzeko neurriak edukitzeko zailtasunak eta beharra.


Datuek adierazten dute, historikoki, nafar emakumeak izan direla, askotan zaintzaile nagusi moduan izendatutako genero-rolak baldintzatuta, gehienetan zainketa-zereginak beren gain hartu izan dituztenak eta, ondorioz, emakumeak dira dauden kontziliazio-neurriak neurri handiagoan erabiltzen dituztenak.

Errealitate hori aldatzeko unea da, gizon askok beren erantzukizunak onartu eta zainketetan aktiboki parte hartzeko unea da. Izan ere, ez gara jaiotzen zaintzen jakinda, baizik eta zaintzen ikasi egiten dugu.



Errealitate horren jakitun, Nafarroako Gobernuak Kontziliazio Erantzunkideko Departamentu arteko Lantaldea sortu zuen, bizitza politiken erdigunean kokatuko zuen zainketen estrategia bat ezartzeko, krisi honen ondoriozko premia berehalakoenei erantzuteko urgentziazko neurri batzuk barne hartuta.

Lan horren emaitza gisa, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak neurrien gida hau egin du. Bertan, hain zuzen, bizitza pertsonala, lana eta familia bateratzea errazteko Foru Komunitateko erakunde desberdinen laguntza edo prestazioen informazioa dago bilduta. Asmoa da nafarrei hurbiltzea egun eskuragarri dauden neurri guztiak biltzen dituen tresna arin bat.



KONTZEPTUAK ARGITZEN

Zainketak: beren bizitzari eustea eta ugaltzea eta ongizate fisiko eta emozionala bermatzeko pertsonak behar dituzten premia guztiak (Lina Gálvez Muñoz).

Bizitzaren jasangarritasuna: bizitzaren prozesua ulertzea aintzat hartuz bai baliabide materialen beharrak bai zaintza eta maitasun testuinguruak eta harremanen beharrak. Bizitzaren jasangarritasunaren kontzeptuak barne hartzen du ordaindutako enpleguaren arloa eta bai bizitza ahalbidetzen duten eta hari eusten dioten etxeko lana eta zainketak ere.


Kontziliazioa: pertsonak bizitzaren alderdi desberdinetan dituzten baliabideen eta denboraren erabilerekin oreka, bereziki eremu pertsonalean, profesionalean, familiarrean edo lanekoan.

- » Kontziliatzea da emakume eta gizonen artean **erantzukizunak partekatzea** etxeko lanetan, mendekotasuna duten pertsonen zaintzetan edo beste alderdi batzuetan.
- » Kontzilazioa da emakumeok eta gizonok ekoizpen-prozesuari, ugalketari eta nork bere espazioari eskaintzen diogun **denbora berrantolatzea**.
- » Kontzilazioa da **emakume eta gizonen artean denboraren ekarpenak banatzea**, haurren hazkuntzan, maitasunean, mendekotasuna duten pertsonen zaintzetan eta bizitzako beharrei erantzuteari eskainitakoan.
- » Kontzilazioa da **ekoizpen-egiturak berriro doitzea** eta bateratzea, enplegatuen behar pertsonalak eta betebeharrak kontuan hartuta.



Erantzukidetasuna: emakumeek nahiz gizonek, gizarteak, enpresek, politika publikoek duten erantzukizuna, betebeharrak eta eginbeharrak antzekoak izan behar direnez, bizitza bideragarria eta jasagarria izan dadin, ekitatearen eta justizia sozialaren ikuspuntutik.

Genero-rolak: gizarte-arauen eta jokoaren multzoa, berariazko kultura baten barnean, sexu jakin bateko pertsonentzat sozialki egokitzat jotzen dituen behar eta gaitasunak. Gainerakoetan, pertsona edo norbanako jakin batek erakusten duen irudi publikoa da, emakume edo gizon izatearena.



NEURRIAK

1 **Telelanaren erregulazioa**
Administrazioan. ARGIBIDE
GEHIAGO »

2 **Enpresetan telelana sustatzea**
eta kontziliazioa laguntzen duten
lan-baldintzak garatzea. ARGIBIDE
GEHIAGO »

3 **Babesa Etxe Lagunei. Lana eta**
familia bateratzeko “Etxe Lagunak”
izeneko baliabidea zabaltzea. ARGIBIDE
GEHIAGO »

4 **Toki-erakundeei kontziliazio-zerbitzuetarako**
laguntzak. Nafarroako Toki Erakundeetarako
laguntzak ezartzea, kontziliazio-guneak abian
jartzeko.

5 **Haurtzaindegi pribatuetarako laguntzak.**
Aurtengo galerak konpentsatzeko eta
haurtzaindegi pribatuak, ekintzaileen
mikroenpresen jabetzakoak, behin betiko
ixtea saihesteko eta ama langileei beren
enpleguari eusten eta/edo lanbidea
garatzen laguntzeko.

6 **Eritasuna edo istripua dela-eta,**
senitartekoak zaintzeko eszedentzian
dauden langileentzako laguntzak, 2020. ARGIBIDE
GEHIAGO »

7 **Autonomoentzako dirulaguntza.**
Autonomoen lana eta familia-bizitza
bateratzeko dirulaguntzak.
Erregulatzeko dago. ARGIBIDE
GEHIAGO »

8 **Familia gurasobakarren kontziliazioa laguntzeko dirulaguntzak 2020.** ARGIBIDE GEHIAGO »

Familia gurasobakarra dela edo gurasobakartasun egoeran dagoela aitortuta duten helduentzako laguntzak, eta Familia Gurasobakarraren tituluaren bidez egiaztatuta daudenentzat.

9 **Kontziliazio erantzukiderako kanpaina.** Sentsibilizazio-kanpaina herritarrentzat eta bereziki gizonentzat, etxeko lanetan eta zaintzakoetan erantzunkideak izateko beharrari buruz, lan-jarduera aldi berean eginez eta genero-rolak urratzea sustatuz. Zainketen garrantzia nabarmentzea pertsonen bizitzan eta politika publikoetan. ARGIBIDE GEHIAGO »

10 **Dirulaguntza mendeko pertsoneri, etxean bizi daitezen, eta laguntza zaintzaileei.** (zenbatekoak %20 emendatzea). ARGIBIDE GEHIAGO »

11 **Familia-etxebizitzan lan egiten duten pertsonen Gizarte Segurantzaren murriztea.** Seme-alabak, gurasoak, beste ahaide batzuk edo pertsona desgaituak zaintzeagatik, etxeko enplegatuaren Gizarte Segurantzako kotizazioengatik ordaindutako kopuruen kenkaria handitzea, egungo %25etik %100era, 2020ko urtarrilaren 1a eta aurtengo abenduaren 31 arteko eraginekin. ARGIBIDE GEHIAGO »

**Gobierno
de Navarra**  **Nafarroako
Gobernua**



**Instituto
Navarro
para la Igualdad**



**Nafarroako
Berdintasunerako
Institutua**